

H A P O
P G O U
G E T X O

GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENA

3. FASEA. IDAZKETA ETA HASIERAKO ONESPENA. 5.6.c.HASIERAKO DOKUMENTUA JENDAURREAN JARTZEA

HERRITARREN PARTAIDETZA PROZESUAREN TXOSTENA

2023ko APIRILA

EDUKIA

1.	PARTAIDETZA PROZESUAREN LABURPENA	3
2.	AURREKARIAK ETA LAN-ESPARRUA.....	7
2.1	Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) berrikuspena.....	7
2.2	Lan-esparrua: informazioa, parte-hartzea eta mugak	8
3.	HELBURUAK, METODOLOGIA ETA PARTAIDETZA-ERAGILEAK.....	9
3.1	Partaidetza-prozesuaren helburuak.....	9
3.2	Parte hartzeko metodologia.....	9
3.3	Eragile parte-hartzaileak	10
4.	PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK.....	11
4.1	Dibulgazio-materiala eta komunikazioa	11
4.2	Hitzaldi publikoak	13
4.3	Erakusketak	18
4.4	Herritarren arretarako karpak.....	18
4.5	Saioak ikastetxeetan.....	20
4.6	Herritarren arreta.....	20
4.7	Partaidetza digitala.....	21
4.8	Bilerak PABrekin, Lurralde Bartzordearekin eta aurretiko bilerak.....	21
5.	ONDORIOAK	22
5.1	Partaidetza-adierazleak.....	22
5.2	Azken ondorioak.....	27

1. PARTAIDETZA PROZESUAREN LABURPENA

Dokumentu honetan, 2022ko urriaren 15etik 2023ko urtarrilaren 15era bitartean Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) Berrikuspenaren HASIERAKO ONESPENAREN edukari buruzko HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN emaitzak jasotzen dira.

Aurrekariak eta lan-esparrua

Parte hartzeko prozesua Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspenaren barruan kokatzen da, zehazki 5. fasean. HAPO IDAZTEA ETA HASIERAKO ONESPENA. Zehazki, 5.6.c. HASIERAKO DOKUMENTUA JENDAURREAN JARTZEA.

Egindako prozesua bat dator onartutako Herritarren Partaidetzarako Programan adierazitakoarekin eta haren aldaketarekin (biak 2012koak), komunikazio- eta hedapen-ekintzak garatu dira eta partaidetzarako publikoa zabaldu da, ahalik eta pertsona gehienek eta desberdinek era informatuan parte har dezaten.

Herritarren ulermena errazteko, Hasierako Onespenaren edukia plano batean laburbildu zen HAPO berriaren balio nagusiekin batera. Aldi berean, Hasierako Onespenaren dokumentuaren funtsezko ideiak lehenetsuneko lau ardatzen inguruan egituratu ziren (gizartea, ingurumena, ekonomia eta fisikoa), eta horiek dibulgazio-materialen bidez azaldu ziren.

Lan-esparrua, batez ere, fase honetan Planaren edukiei buruzko informazioa ematean datza, alegazioak jaso aurretik. Legez jendaurreko erakustaldiaren eta alegazioen fase bakarra bada ere, informazio- eta partaidetza-mekanismoak fasearen hasieran programatu ziren, informazioa emateko aukera izateko eta zalantzak eta kontsultak ebazteko estrategiarekin, hala beharrezkoa balitz, alegazioak egin aurretik. Horretarako, parte-hartzeari dagokionez, askotariko dibulgazio-materiala eta informazio- eta partaidetza-modu edo -mekanismo ugari prestatu ziren, hizkera erraz, bisual eta intuitiboarekin, herritarren ulermena errazteko. Partaidetza-mekanismoek Plan berriaren fase honetako edukia erakustea eta azaltzea bilatu zuten, baita egon zitezkeen zalantza eta kontsultei erantzutea ere.

Partaidetza-mekanismoen deskribapena

ahalik eta pertsona gehienek eta desberdinek parte har zezaten, hainbat partaidetza-mekanismo gaitu ziren: askotariko dibulgazio-materiala (HAPOren webgunea besteak beste, www.hapo-getxo.eus), lau hitzaldi publiko udalerriko hainbat tokitan, hiru erakusketa udalerriko hiru ekipamendutan, herritarren arretarako lau karpa, haur eta gazteekin egindako saioak, 215 banakako bilera erredakzio-taldearekin, bilera berezi bat, lau saio Plangintzako Aholku Batzordearekin (PAB) eta bat Udaleko Lurralde Batzordearekin. Era berean, informazio tekniko guztia HAPOren webgunean egon da eskuragarri.

Taula honetan, mekanismo bakoitzeko datuekin parte hartzeko mekanismoak laburbiltzen dira:

PARTE HARTZEKO EKINTZAK	DESKRIBAPENA	PARTAIDEZTA DATUAK
Dibulgazio-materiala	<ul style="list-style-type: none"> • Getxoberri (gehigarria) • Liburuxka • Hitzaldien aurkezpena • Erakusketa-panelak • Prentsa oharrak eta sare sozialetarako testuak • Sare sozialetarako material grafikoa • Kartelak • Herritarren arretarako karpetarako lonak 	
Hitzaldi publikoak urriak 20 azaroak 3, 10 eta 17	<p>4 hitzaldi publiko 1 hasieran, eta 3, auzoetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Muxikebarri, 2022/10/20, 19:00 • RKE, 2022/11/3, 19:00 • Andra Mari (Kirolde.), 2022/11/10, 19:00 • Fadura (kirolde.) 2022/11/17, 19:00 	<p>456 pertsona</p> <ul style="list-style-type: none"> • 118 pertsona (57E, 161G) • 55 pertsona (22E, 33G) • 178 pertsona (76E, 102G) • 105 pertsona (55E, 50G)
Erakusketak urriak 15 – urtarrilak 15	<p>3 erakusketa auzoetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • RKE 15/10 - 15/1 • Andramari (Kirolde.) 15/10 - 15/1 • Fadura (Kirolde.) 15/10 - 15/1 	
Herritarren arretarako karpak	<p>4 karpa, 11:00etatik 19:00etara. Herritarrentzako arreta 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, auzoz auzo:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Malakate 2022/12/12 • Algorta geltoki plaza 2022/12/13 • Bidezabal Plaza 2022/12/14 • Areeta, Plaza las escuelas, 2022/12/15 	<p>115 pertsona</p> <ul style="list-style-type: none"> • 26 pertsona (9E, 17G) • 38 pertsona (18E, 20G) • 31 pertsona (16E, 15G) • 20 pertsona (8E, 12G)
Saioak ikastetxeetan 2022ko abendua eta 2023ko otsaila	<p>6 saio ikastetxeetan</p> <ul style="list-style-type: none"> • CPES Ibaiondo BHIP, 2022/12/2 • Getxo I, Batxiller, 2022/12/22 • Col. Santísima Trinidad 2023/2/6 	<p>6 saio, 247 ikasle</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2 saio (47 ikasle) • 3 saio (145 ikasle) • 1 saio (55 ikasle)
Herritarren arreta urriak 15 – urtarrilak 15	<p>Banakako bilerak erredakzio-taldearekin</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hitzordu eskaerak • Bilera ezeztuak / ez ziren agertu • Ez zuten erantzun deitu zitzaientean • Ezin zitzaien hitzordurik eman / Epez kanpo 	<p>215 bilera egin ziren</p> <ul style="list-style-type: none"> • 281 eskaera • 17 (% 6) ezeztuak • 27 (% 9,6) ez zuten erantzun • 22 (% 7,8) hitzordu gabe

Bilera bereziak	Bilera 1 Salsiduko bizilagunekin (auzokideen 7 erkidegoren presidenteak + abokatua)	Bilera 1 – 8 pertsona Salsidu
Partaidetza digitala urriak 15 – urtarrilak 15	HAPOn webgunea eguneratzea www.hapo-getxo.eus (elebiduna) <ul style="list-style-type: none"> • 5 orrialdeak eguneratzea: Hasiera, Aurrerapena (orain Hasierako Onespena), Parte hartu, Dokumentazioa eta Berriak) • Testu eta material elebidunak • HAPOn dokumentuak webgunera igo 	
Bilerak PABekin / Lurralde Batzordearekin	4 saio PAB + saio 1 Lurralde Batzordea: <ul style="list-style-type: none"> • Batzordea 2022/9/14, parte-hartzearen azalpena • PAB 2022/10/20, parte-hartzearen azalpena • PAB 2022/11/17, Hasierako Onespenaren azalpena • PAB 2023/1/19, parte-hartzearen datuak + proposamenak • PAB 2023/2/9, proposamenen bozketa 	
GUZTIRA	Hitzaldi publikoak 456 % 44 Herritarren arretarako karpak 115 % 11 Saioak ikastetxeetan 247 % 24 Banakako bilerak 215 % 21 Bilera bereziak 8 % 1	
GUZTIRA 1.041 pertsona		

Ondorioak

Parte-hartzaileen kopuru orokorra 1041 pertsonakoa da, kontuan hartu gabe pertsona batzuek parte hartzeko mekanismo bat baino gehiago erabili zutela (adibidez, hitzaldi publikoetara joaten ziren pertsona batzuek banakako bilerak izatea erredakzio-taldearekin, edo herritarren karpetara hurbiltzea). Hala eta guztiz ere, parte-hartze prozesuak, bere mekanismo aniztasunarekin, plana herritarrei hurbiltzea lortu zuela uste da, bai informazioa jaso nahi izan zutenei, bai zalantzak edo kontsultak argitu nahi izan zituztenei, eta, kasuaren arabera, fase horretan Planari alegazioak egitea.

Aldi berean, mekanismoen multzoari esker, HAPO berriaren hainbat gairi buruzko hainbat ikuspuntu identifikatu ahal izan ziren, bai Planaren alde, bai kontra. Alde batetik, nolabaiteko adostasuna ikusi zen Azkorri aktibo natural gisa babesteko (kontrako iritzi batzuekin). Bestalde,

iritzi-aniztasuna ikusi zen, baina ez zen adostasun argirik lortu etxebizitza berrien kopuruari dagokionez (etxebizitza babestuen ehunekoa azaldu bazen ere, iritzi orokorra hobea zen) eta lurzoru urbanizagarriko sektoreen garapenari dagokionez (askotariko iritziak daude sektore horietako lurzoruaren edo eraikinen jabeen artean). Azkenik, Zubilleta eraberritzeko edo berritzeko jarduketaren aurkako iritzi orokorra ikusi zen eremu horretan bizi direnen artean (baina, berriz ere, iritzi-aniztasun apur batekin, eta jarduketaren aldeko iritziak ere jaso ziren).

2. AURREKARIAK ETA LAN-ESPARRUA


2.1 Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) berrikuspena

Parte hartzeko prozesua Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspenaren barruan kokatzen da, zehazki 5. fasean. HAPO IDAZTEA ETA HASIERAKO ONESPENA. Zehazki, 5.6.c. HASIERAKO DOKUMENTUA JENDAURREAN JARTZEA.

Gaur egun indarrean dagoen HAPO 2001. urtekoa da. Berrikuspena nahitaezkoa da eta prozesu luzea da. Hainbat fase ditu behin betiko onartu arte. 2013 eta 2015 urteen artean, parte hartzeko lehen prozesu bat egin zen, bai eta azalpen-aldi bat ere, Aurrerakinaren dokumentu teknikoaren inguruan hainbat ekarpen jasoz.

2018an, Udalak berriro ekin zion HAPOren berrikuspenari, alternatibak eguneratuz eta Getxoko herritar guztiei irekitako partaidetza-prozesu batekin, plan berriaren irizpideak eta helburuak zehazteko. Irizpide eta helburu horiek 2019ko maiatzean onartu ziren, eta, ondoren, eguneratu egin ziren arau-aldaketa bat zela eta, eta 2020ko martxoan onartu ziren bigarren aldiz. Gainera, 2019an parte-hartze prozesu espezifiko bat gauzatu zen HAPOn genero-ikuspegia barneratzeko.

2022ko irailean, HAPOk urrats garrantzitsua eman zuen, Hasierako Onespenaren dokumentuarekin. Mugarri esanguratsua da, plana bere azken helburura hurbiltzen duena, hau da, Behin Betiko Onespenera, 2001eko egungo HAPO ordezkatuko duen dokumentura.



Getxoko HAPOaren berrikuspenaren faseak

2.2 Lan-esparrua: informazioa, parte-hartzea eta mugak

Egindako prozesua bat dator onartutako Herritarren Partaidetzarako Programan adierazitakoarekin eta haren aldaketarekin (biak 2012koak), komunikazio- eta hedapen-ekintzak garatuz eta partaidetzarako publikoa zabalduz, ahalik eta pertsona gehienek eta desberdinek era informatuan parte har dezaten.

Lan-esparrua, batez ere, fase honetan Planaren edukiei buruzko informazioa ematea izan zen, alegazioak jaso aurretik. Legez jendaurreko erakustaldiaren eta alegazioen fase bakarra bada ere, informazio- eta partaidetza-mekanismoak fasearen hasieran programatu ziren, informazioa emateko aukera izateko eta zalantzak eta kontsultak ebazteko estrategiarekin, hala beharrezkoa balitz, alegazioak egin aurretik. Horretarako, parte-hartzeari dagokionez, askotariko dibulgazio-materiala eta informazio- eta partaidetza-modu edo -mekanismo ugari prestatu ziren, hizkera erraz, bisual eta intuitiboarekin, herritarren ulermena errazteko. Partaidetza-mekanismoek Plan berriaren fase honetako edukiak erakustea eta azaltzea bilatu zuten, baita egon zitezkeen zalantza eta kontsultei erantzutea ere.

Herritarren ulermena errazteko, Hasierako Onespenaren edukia plano batean laburbildu zen HAPO berriaren balio nagusiekin batera. Aldi berean, Hasierako Onespenaren dokumentuaren funtsezko ideiak lehentasunezko lau ardatzen inguruan egituratu ziren (gizartea, ingurumena, ekonomia eta fisikoa), eta horiek dibulgazio-materialen bidez azaldu ziren.

Azkenik, aipatu behar da parte-hartze prozesuaren emaitzak ezin direla lotesleak izan, HAPOren beraren mugak direla eta. Udal-tresna juridikoa izan arren, udalerriz gaindiko administrazioetatik datozen hainbat baldintza ditu, eta horiek integratu egin behar ditu. Hala, HAPOk legeria sektoriala jaso behar du, bai eta Estatutik, Eusko Jurlaritzatik edo Bizkaiko Foru Aldunditik datozen aplikazio zuzeneko arauak ere (hirigintza-estandarrek, adibidez), hala nola, honako hauekin lotura dutenak: kostaldeak, urak, errepideak, metroa, aireportuaren eragina, lurzoru kutsatuak, ondarea edo telekomunikazioak. Zehazki, etxebizitzaren arloan, Eusko Jurlaritzatik, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) arautzen dute (eskualde-mailako LPP), HAPOn gehienez planifikatu daitezkeen etxebizitza berrien kopurua

3. HELBURUAK, METODOLOGIA ETA PARTAIDETZA-ERAGILEAK

3.1 Partaidetza-prozesuaren helburuak

Hasierako Onespen-fasean, HAPO oso maila tekniko garatuan dago jada, eta, maila tekniko horretan, ongizate komunaren gai makroak ezarrita daude aurretik onartutako Irizpide eta Helburuen dokumentuan. Horregatik, Hasierako Onespenaren fase honetan parte hartzeko prozesua, batez ere, Plana ezagitzera emateko eta bere edukiei buruz informatzeko da. Hori oinarritzat hartuta, proposamenak kontrastatzea eta adostea ere lortu nahi da, ekarpen gehigarriak batuz, HAPOri benetan lagundu ahal izateko.

- Hasierako Onespenaren edukiaren **BERRI EMATEA**, ahalik eta pertsona gehienek eta desberdinek parte har dezaten.
- Hasierako Onespenaren edukia **EGIAZTATZEA** eta **ADOSTEA**, eginkizun horretan, ikuspegi desberdinak jasoko dituen parte-hartze erreala eta eraginkorra erraztuz.
- Herritarren ekarpenak eta proposamenak **JASOTZEA**, ikuspuntu tekniko hutsa zabalduz.

3.2 Parte hartzeko metodologia

Planteatutako helburuak lortzeko, metodologiak ondoz ondoko hiru etapa ditu: prestakuntza, informazioa eta parte-hartzea, eta ebaluazioa.

Prestakuntza-etapan, eragileen mapa, prozesuaren ardatz izan ziren gaiak eta komunikazio- eta partaidetza-material guztia garatu ziren. Informazio-etapan, dibulgazio- eta partaidetza-mekanismoak gauzatu ziren (erakusketa publikoak, hitzaldi publikoak, Getxoberriren gehigarria, webgunea eta aurrerago zehazten diren gainerakoak). Aldi berean, herritarren arretarako karpen kanala ere ireki zen, eta horren bidez zalantzak edo kontsultak banan-banan argitu ahal izan ziren erredakzio-taldearekin, interes partikularreko gaiak jorrazteko helburuarekin. Partaidetza zabalik egon zen bi hilabeteetan alegazioak erregistro bidez egiteko aukera egon zen. Azkenik, ebaluazio-etapa, egindako ekintzen laburpenean eta emaitzen txosten hau idaztean datza.

Jendeak Hasierako Onespenaren edukia errazago ulertu dezan, lehentasunezko 4 ardatzen inguruan egituratu da: gizartea, ingurumena, ekonomia eta fisikoa. Ardatz guztiek hirigintzako eta zeharkako gaiak jorrazten dituzte. Azken gai horietako batzuk ez ditu HAPOk zuzenean arautzen, baina eragina dute, eta, beraz, hasieratik aztertu behar dira.

Komunikazio- eta partaidetza-material guztia, presentziala zein digitala, 4 ardatzetan oinarritzen da.



Getxoko HAPOren lehentasunezko ardatzak

3.3 Eragile parte-hartzaileak

Parte hartze prozesua getxoztar guztientzat irekita egon zen. Parte hartzeko mekanismoen bidez, prozesua eragile-talde hauei zuzendu zitzaien:

1. Getxoztarrak
2. Getxoko elkarteak
3. Getxon lan egiten edo ikasten duten pertsonak
4. Getxo bisitatzen duten pertsonak (aisialdirako edo senideak edo lagunak bisitatzeko)
5. Udaleko teknikariak
6. Udaleko ordezkariak

Prozesuan parte hartu duten eragileen tipologia

4. PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK

4.1 Dibulgazio-materiala eta komunikazioa

Komunikazio-estrategiak bi helburu izan zituen:

- **Informazioa ematea**, partaidetza informatua bermatzeko.
- **Parte hartzera gonbidatzea**, parte-hartzaile kopuru eta aniztasun handia lortzeko.

Komunikazio-materialak, -tresnak eta -kanalak erantsitako taulan jaso dira. Komunikazio-material guztia elebiduna izan zen, eta, era berean, hizkuntza ez-sexistaren tratamendu egokia bermatu zen, indarreko xedapenen eta araudiaren arabera.

DIBULGAZIO-MATERIALA		
1	Getxoberriko gehigarria , 8 orrialdeko gehigarria (4 euskaraz, 4 gaztelaniaz), Hasierako Onespen-prozesuari buruzkoa eta HAPO berriaren jendaurrean jartzearen faseari buruzkoa.	33.000 ale
2	Informazio-liburuxka , informazio-saioen, erakusketen eta herritarrentzako arretaren egutegiarekin. Erakusketetan banatuta. Eta formatu handiko 8 orrialdeko liburuxkak (4 euskaraz, 4 gaztelaniaz), herritarren arretarako karpetan banatuta.	1800 liburuxka (1000+800)
3	Hitzaldietarako sortutako aurkezpena	4 aurkezpen (antzekoak, baina saioren kokapenaren arabera egokituak)
4	Erakusketa-panelak	Formatu handiko panel 1 (pop-up) eta roll-up motako 2 panel
5	Prentsa-oharrak , parte-hartze prozesuan zehar, bai eta udaleko sare sozialetan zabaltzea ere.	4 prentsa-ohar
6	Material grafikoa , Udaleko sare sozialetarako: <ul style="list-style-type: none"> • Twitter • Facebook 	

Hurrengo orrialdeak erakusketen irudiak, HAPOri buruzko Getxoberriren gehigarria, hitzaldi publikoak herritarren arretarako karpenter argazkiak biltzen ditu.



PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA PGOU

Conoce el nuevo Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Getxo

El PGOU, en fase de Aprobación Inicial, se abre a exposición pública durante tres meses: entre el 15 de octubre de 2022 y el 15 de enero de 2023.

¿QUÉ fases tiene y dónde estamos?

ESTUDIOS PREVIOS (2015-2018)	2022	2023
AVANCE	APROBACIÓN INICIAL	APROBACIÓN PROVISIONAL / APROBACIÓN DEFINITIVA

¿QUÉ regula el PGOU?

El PGOU, Plan General de Ordenación Urbana, es el instrumento básico y el marco de actuación de las políticas de ordenación y gestión del territorio municipal.

Participación en esta fase

Desde este mes, entre el 15 de octubre de 2022 y el 15 de enero de 2023, se abre a exposición pública el nuevo PGOU. En esta fase de participación ciudadana, se invita a todos los ciudadanos a conocer el nuevo PGOU y a aportar sus sugerencias y aportaciones.

www.hapo-getxo.us

ANEXO: PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA (PGOU) DE GETXO

Principales valores del nuevo PGOU

1. Preservar Azkorni como un activo natural de Getxo. El plan actual (de 2001) prevé viviendas en la zona, hasta Sopela y Berango. No obstante, el nuevo PGOU prevé preservar entre el 70-80% de suelo.
2. Crear nuevos parques, equipamientos y servicios de proximidad, para un Getxo completo, conectado y vivo, que satisfaga las necesidades diarias de los y las getxotarras y proporcione calidad de vida.
3. Impulsar la actividad económica, evitando el modelo de ciudad dormitorio y potenciando, además de vivir y disfrutar, trabajar en Getxo.
4. Planificar 4.601 nuevas viviendas para hacer frente a las necesidades de la juventud de Getxo, para mantener y ocupar población.
 - 3.028 viviendas
 - 1.573 nuevas viviendas

¿Cómo impacta el nuevo PGOU en los barrios?

El nuevo PGOU prevé un modelo de desarrollo urbano que se centra en el eje central de la ciudad, desde el casco urbano hasta el barrio de Sopela y Berango. El plan prevé un modelo de desarrollo urbano que se centra en el eje central de la ciudad, desde el casco urbano hasta el barrio de Sopela y Berango.



4.2 Hitzaldi publikoak

Lau hitzaldi publiko egin ziren Muxikebarri, RKE, Andra Mari Kiroldegian eta Faduran. Lau hitzaldi publikoak ordu eta erdikoak izan ziren, eta honako eduki hauek izan zituzten:

- Sarrera, HAPO zer den eta Hasierako Onespenaren egungo egoeraren azalpena.
- Berrikuspen-prozesuan zehar parte hartzea, eta, horretarako, 2013tik 2015era bitarteko lehenengo ekintzetatik hasita, 2018ko aurrerapenaren, 2019an genero-ikuspegia txertatzearen eta 2022an hasierako onespenaren dokumentuari dagokion parte-hartzearen errebasoa egitea.
- Hasierako onespenaren dokumentuaren edukiak (hitzaldi publikoaren zati handiena). Zati hau zertxobait desberdina izan zen hitzaldi bakoitzean, gai garrantzitsu ezberdinak azpimarratu baitziren hitzaldiaren kokapenaren arabera. Oro har, iraunkortasun integratuko eredua azaldu zen, lau ardatzekin: soziala, ingurumenekoa, ekonomikoa eta fisikoa. Ardatz horietako bakoitza azaldu zen, eta HAPOren lau balio nagusien laburpenarekin amaitu zen. Era berean, etxebizitza berriaren aurreikuspena azaldu zen, jarduketa mota bakoitzarentzako (zuzkidurakoak, eraberritzeakoak edo berritzeakoak/integratuak, eta lurzoru urbanizagarrikoak), baita etxebizitza mota bakoitzerako ere (babes sozialekoak, babes tasatukoak, librekoak eta zuzkidura-bizitokiak). Hiri-lurzoruko jarduketak azaldu ziren (zuzkidurakoak eta eraberritze- edo berritze-jarduketa/integratuak) eta lurzoru urbanizagarriko jarduketak (5 bizitegi-sektoreak eta 6. sektorea, jarduera ekonomikokoak) azaldu ziren, baita Berangorekiko bateragarritze plana ere.
- Ordubeteko azalpenaren ondoren, ordu erdi eman zen publikoaren galderei erantzuteko (zenbait hitzalditan ordubetera luzatu zen).

Ondoren, hitzaldi publiko bakoitzeko informazioa jasotzen da, parte-hartzaileei, lekuari eta datari dagokienez, baita bertaratutakoen galdera eta iruzkinen laburpen bat ere.

4.2.1 01 HITZALDI PUBLIKOA: MUXIKEBARRI

Parte-hartzaileak: 118

- Emakumeak: 57 % 48
- Gizonak: 61 % 52

Tokia: Muxikebarri

Data: 2022/10/20

Algortako zentroko lehen hitzaldi publiko horretan 118 parte-hartzaile izan ziren, gehienak Andra Mari, Azkorri eta Martiturrikoak (% 37, % 11 eta % 11, hurrenez hurren), ondoren Algorta eta Salsidu (% 16, hurrenez hurren) eta, neurri txikiagoan, Erromo, Neguri eta Salsidualde (% 3, hurrenez hurren). Hau da, bertaratutako gehienak HAPO berriak zuzenean eragindako pertsonak ziren, lurzoru urbanizagarrian, urbanizaezinean eta Zubilletasen jarduketan. Generoaren arabera oso parekidea izan zen, baina galderen eta ekarpenen txandan gehienak gizonezkoak izan ziren (10 parte-hartzaile, 2 emakume eta 8 gizon).

Saio bukaerako hamar esku-hartzeek, batez ere, honako gai hauekin izan zuten zerikusia:

- Zubilletaren jarduketa (esku-hartzeen ia erdia): auzokideen kezka handia da etorkizunaz eta etxebizitzaren balizko eraispenaz, bloke batzuk berriki berritu ondoren. Kezka ere dago, eremuaren uholde-arriskuagatik eta antolamenduz kanpoko egoeragatik.
- Algortako zuzkidura-jarduketa (Batzoki): ikastetxearentzako espazioa eta lurzoruaren ondoriozko jabetza.
- Lurzoru urbanizagarriko jarduketak: 3. eta 5. sektoreak, Andra Mariko gunek, antolamendutik kanpo geratzen diren etxebizitzak.
- Bizitegi-kuantifikazioa.



4.2.2 02 HITZALDI PUBLIKOA: ROMO KULTUR ETXEA

Parte-hartzaileak: 55

- Emakumeak: 22 % 40
- Gizonak: 33 % 60

Tokia: RMK

Data: 2022/11/04

Bigarren hitzaldi honeetan 55 pertsona bildu ziren, lau hitzaldietatik bertaratze txikiena izan zuena. Azalpenean, hiri-lurzoruari buruzko gaiak azpimarratu ziren (gehienbat Erromoko, Areetako eta Neguriko biztanleria bertan zegoela pentsatuz), eta aurreko hitzaldian galderak sortu zituzten bizitegi-kuantifikazioa bezalako gaiak zehatzago azaldu ziren.

Bertaratutakoen ia erdiak Erromokoak dira (% 48), baina nabargarria da ere Algortatik eta Andra Maritik gerturatu ziren biztanleak (% 24 eta % 19, hurrenez hurren). Salsidu eta Areetako biztanleak ere bertaratu ziren (% 5, hurrenez hurren).

Generoari dagokionez, gizonen bertaratzea emakumeena baino handiagoa izan zen, eta, aurreko hitzaldiaren antzera, galderen txandan ere, parte-hartzea nabarmen handiagoa izan zen gizonen artean emakumeen artean baino (11 parte-hartzetik, 2 baino ez emakumezkoenak).



Bertaratuek egindako 11 galdera eta iruzkinen artean, hainbat Nagusien Etxeari buruzkoak izan ziren, baina dagoeneko abian dagoen jarduketeta da, HAPOren berrikuspenaren irismenetik kanpo dagoena.

HAPOk Erromon eta Areetan zehazki duen eraginari buruz galdetu zen, baita kultura-ondarearen babesari buruz ere.

Andra Mariri buruzko iruzkinak jaso ziren berriro (Tosu, Martiturri-Ibarbengoa eta Andra Mariren nukleoak), eta iritzi desberdinak jaso ziren: horiek ez garatzea nahiko luketenenak eta gehiago garatzea nahiko luketenenak.

Beste jarduketeta batzuei buruzko iruzkinak ere jaso ziren: Ormaza eta Zubilletas.

4.2.3 03 HITZALDI PUBLIKOA: ANDRA MARI

Parte-hartzaileak: 178

- Emakumeak: 76 % 43
- Gizonak: 102 % 57

Tokia: Andra Mari Kiroldegia

Data: 2022/11/10

Hirugarren hitzaldi publikoa, Andra Marin, izan zen bertaratuen kopuru handiena hartu zuena (178). Hitzaldia kiroldegiko frontoian egin zen, behar bezain leku handia eta eremutik gertukoa izan zedin, baina, hala ere, akustika eta pantailaren ikuspena ez ziren egokiak izan (beraz, hurrengo hitzaldian bi alderdia hauek hobetzeko saiakera egin zen).

Hitzaldi honetako parte-hartzaile gehienak Andra Marin bizi dira (% 93), % 4 Algortan eta % 3 Azkorriin. Generoari dagokionez, gizon gehiago egon ziren emakumeak baino, eta, berriz ere, emakumeen parte-hartzea nabarmen txikiagoa izan zen galderen eta ekarpenen txandan (11 ekarpenetatik 3 bakarrik).

Galderak eta iruzkinak honako gai hauei buruzkoak izan ziren: Andra Mariko lurzoru urbanizagarriko jarduketak, lurzoru urbanizagarri gisa babesten den Andra Mari – Azkorriko lurzoru urbanizagarriaren desklasifikazioa, eta Plan Berezira igorritako Andra Mari hiriguneen egoera. Iritzi desberdinak ikusi ahal izan ziren, garapen txikiagoa nahiko luketenetatik garapen handiagoa nahiko luketenetara. Iraganean OHZk izandako aldaketei buruz (lurzoruaren sailkapen-aldaketak direla eta) eta etxebizitzak lurzoru urbanizaezinean zein egoeratan geratuko diren galdetu zen.



4.2.4 04 HITZALDI PUBLIKOA: FADURA

Parte-hartzaileak: 105

- Emakumeak: 55 % 52
- Gizonak: 50 % 48

Tokia: Fadura Kiroldegia

Data: 2022/11/17

Laugarren eta azken hitzaldi publikoan 105 pertsona bildu ziren. Auzoka parte-hartzaile aniztasun handiena izan zuen saioa izan zen: neurri handiagoan, Algorta (% 30), Salsidu (% 27) eta Andra Mari (% 27), eta neurri txikiagoan, Salsidualde (% 4), Romo (% 4), Areta (% 4), Martiturri (% 1) eta Aiboa (% 1).

Generoari daokionez, egin ziren hitzaldi guztietatik, honetan bakarrik parekatu ziren emakume parte-hartzaileak eta Getxoko biztanleriaren emakumeen kopurua (% 52),. Eta beste hitzaldiekin alderatura, honetan emakumeek parte-hartze handia izan zuten; 17 esku-hartzetatik, 6 emakumeenak izan ziren.

Hitzaldi honetan, Andra Marin identifikatutako gabeziak hobetzeko saiakera egin zen, akustika eta pantailak hobetuz. Era berean, hitzaldia euskara eta gaztelania txandakaturaz egin zen, bikoiztasunik gabe, eta aldibereko itzulpen sistema batekin.

Galderen eta iruzkinen txandan atera ziren galderen eta ekarpenen artean, berriz ere protagonismoa izan zuten Zubilletaseko jarduketek (bilera dagoeneko adostuta zegoen auzo-ordezkariekin), Andra Marin lurzoru urbanizagarrian egindako jarduketek, Andra Mariren nukleoek, lurzoru urbanizaezinak, eta, azkenik, aurreko hitzaldietan sortu ez zenez, Santa Eugenia 18ko zuzkidura-jarduketak, Erromon.



4.3 Erakusketak

2022ko Urriaren 15etik 2023ko urtarrilaren 15era bitartean hiru erakusketa paralelo antolatu ziren. Getxoko hiru tokitan: RKE, Andra Mari eta Fadura. Erakusketetan, erakusketa-panelez gain, informazio-liburuxkak ere jarri ziren (300 erakusketa bakoitzean).



4.4 Herritarren arretarako karpak

Abenduan herritarren arretarako karpak jarri ziren Getxoko hainbat tokitan, abenduaren 12tik 15era bitartean: Malakaten, Algortako geltokiko plazan, Bidezabal plazan eta eskoletako plazan (Areta).

Herritarren arretarako karpak	4 karpa, 11:00etatik 19:00etara. Herritarrentzako arreta 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, auzoz auzo:	115 pertsona
	<ul style="list-style-type: none"> • Malakate 2022/12/12 • Algorta geltoki plaza 2022/12/13 • Bidezabal Plaza 2022/12/14 • Areta, Plaza las escuelas, 2022/12/15 	<ul style="list-style-type: none"> • 26 pertsona (9E, 17G) • 38 pertsona (18E, 20G) • 31 pertsona (16E, 15G) • 20 pertsona (8E, 12G)



Herritarren arretarako karpa Malakaten.



Herritarren arretarako karpa Bidezabal plazan, eskoletako plazan eta Algortako geltokiko plazan.

4.5 Saioak ikastetxeetan


Sei saio egin ziren udalerriko hiru ikastetxe desberdinetan, Getxon ikasten ari diren 247 ikasleri HAPO hurbilduz, eta planari buruzko ekarpenak jasoz.

Saioak ikastetxeetan	6 saio ikastetxeetan	6 saio, 247 ikasle
2022ko abendua	<ul style="list-style-type: none"> CPES Ibaiondo BHIP, 2022/12/2 	<ul style="list-style-type: none"> 2 saio (47 ikasle)
2023ko otsaila	<ul style="list-style-type: none"> Getxo I, Batxiller, 2022/12/22 Col. Santísima Trinidad 2023/2/6 	<ul style="list-style-type: none"> 3 saio (145 ikasle) 1 saio (55 ikasle)

4.6 Herritarren arreta

Eskaera handia izan zuten erredakzio-taldearekin egoteko banakako bilerek. 281 hitzordu eskatu ziren eta 215 bilera egin ziren. Eskatutako hitzorduetatik 27 ezeztatu egin ziren, hitzordua zehazteko deitu zitzairenean ez zutelako erantzun. Halaber, 17 hitzordu eskatzaileek ezeztatu zituzten bilerara etorri ez zirelako. Eta eskatutako 22 hitzordu ezin izan ziren gauzatu, epez kanpo geratu zirelako. Horrela, eskatutako hitzordu gehienak eman eta gauzatu ziren.

Herritarren arreta	Banakako bilerak erredakzio-taldearekin	215 bilera egin ziren
urriak 15 – urtarrilak 15	<ul style="list-style-type: none"> Hitzordu eskaerak Bilera ezeztuak / ez ziren agertu Ez zuten erantzun deitu zitzairenean Ezin zitzaizen hitzordurik eman / Epez kanpo 	<ul style="list-style-type: none"> 281 eskaera (328-47 bikoiztuak) 17 (% 6) ezeztuak / ez ziren agertu 27 (% 9,6) ez zuten erantzun 22 (% 7,8) hitzordu gabe



4.7 Partaidetza digitala

HAPOnen berrikuspen-fase honetan, parte-hartze digitala funtsezko bi alderditan banatzen da: batetik, www.hapo-getxo.eus web-orriaren eguneratzea, eta, bestetik, udal-erregistro telematikoaren bitartez alegazioak egiteko aukera. HAPOnen webgunea HAPOnen edukiekin eguneratu zen fase honetan, bost orrialdeetan eta ele bitan:

- **Hasiera**, testuak eta irudiak eguneratu ziren, bai eta fase-diagrama ere, egungo fasea zein den adieraziz.
- **HAPO: Aurrerakina**, (eguneratu zen: **HAPO: Hasierako Onespena**) dibulgazio-materiala jarri zen, eta jendaurreko hitzaldien aurkezpenak eskuragarri daude.
- **Parte hartu**, partaidetza-mekanismoei buruzko informazioarekin.
- **Dokumentazioa**, Hasierako Onespenaren dokumentazio tekniko guztia eskuragarri dago.
- **Berriak**, Getxoberriko gehigarria deskarga daiteke, dibulgazio-material nagusi gisa.

Bestalde, “parte hartzetu” orriaren barruan, udaleko erregistro elektronikorako esteka bat jarri zen, eta bertatik alegazioak egin ahal izan ziren.

4.8 Bilerak PABrekin, Lurralde Bartzordearekin eta aurretiko bilerak

Arestian deskribatutako partaidetza-mekanismoekin batera, lau saio egin ziren Udal Plangintzako Aholku Bartzordearekin, eta bilera bat Lurralde Bartzordearekin. Hitzaldi publikoetan jasotako iruzkinak aintzat hartuta, bilera espezifiko bat ere egin zen Zubilletaseko jarduketak eragindako Salsiduko blokeetako auzo-ordezkariekin.

Bilerak PABrekin / Lurralde Bartzordearekin	4 saio PAB + saio 1 Lurralde batzordea: <ul style="list-style-type: none"> • Batzordea 2022/9/14, parte-hartzearen azalpena • PAB 2022/10/20, parte-hartzearen azalpena • PAB 2022/11/17, Hasierako Onespenaren azalpena • PAB 2023/1/19, parte-hartzearen datuak + proposamenak • PAB 2023/2/9, proposamenen bozketa 	
Bilera bereziak	Bilera 1 Salsiduko bizilagunekin (auzokideen 7 erkidegoren presidenteak + abokatuak)	Bilera 1 – 8 pertsona Salsidu

Aipagarria da, parte-hartzea hasi aurretik, bost informazio-bilera egin zirela: hiru, 2022ko urtarrilean (gobernu-taldearekin, talde politiko guztiekin eta udal-teknikariekin); beste bilera bat, talde politiko guztiekin, uztailean; eta azken bilera bat, irailean.


5. ONDORIOAK

5.1 Partaidetza-adierazleak

5.1.1 Parte-hartzaile kopurua eta parte-hartzaileak parte hartzeko moduaren arabera

Guztira, 1041 pertsonak hartu zuten parte. Kopuru horrek ez du kontuan hartzen pertsona batzuk konferentzia publiko batera baino gehiagotara edo banakako bileretara ere joan zirela.

Parte-hartzaileen % 44k hitzaldi publikoen bidez parte hartu zuen, eta % 24k eta % 21ek ikastetxeetan egindako saioen eta banakako bileren bidez, hurrenez hurren. Neurri txikiagoan, herritarren arretarako karpak (% 11) eta bilera berezien (% 1) bidez parte hartu zen.




Parte-hartzaileak, parte hartzeko moduaren arabera

5.1.2 Parte-hartzaileak, sexuaren arabera

Sexuaren araberako segmentazioari dagokionez, % 39 emakumeak izan ziren, % 61 gizonak. Gizonen presentzia handiagoa da parte hartzeko modu guztietan. Emakumeen presentzia handiena hitzaldi publikoetan izan zen, bai parte hartzeko moduaren araberako proportzioan, bai bertaratuen kopuruan; hala, 10 parte-hartzailetik 4 emakumeak izan ziren.

Adierazi behar da parte-hartzaiek ez duela beste identitate batzuen ordezkartzarik izan; izan ere, datuak aurrez aurreko partaidetza-moduetatik jaso dira, eta sailkapena ikusmen hutsezko behaketaren eta bertaratze-zerrendetako izenaren arabera egin da.




Parte-hartzaileak, sexuaren arabera parte-hartze presentzialarekiko eta digitalarekiko

	Hitzaldi publikoak	Saioak ikastetxeetan	Banakako bilerak	Herritarren arretarako karpak	Bilera bereziak	GUZTIRA
Pertsona kopurua	456	247	215	115	8	1041
Emakumeak (%)	%46	%45	%37	%44	%25	%39
Gizonak (%)	%54	%55	%63	%56	%75	%61
Beste ident. (%)						

5.1.3 Parte-hartzaileak, adinaren arabera

Parte-hartzea anonimoa izan zen eta ez zen adinari buruz galdetu. Parte hartzeko modu guztietatik, Herritarrei arreta emateko karpetan bakarrik jaso zen parte-hartzaileen adinaren datua (115 pertsona).

Parte-hartzea handiagoa izan zen adin-tarte helduenetan. Parte-hartzaile gehienak 65 urtetik gorakoak dira. Halaber, 45 eta 65 urte bitarteko 37 pertsona hurbildu ziren karpetara. Eta neurri txikiagoan bada ere, 34 eta 45 urte bitarteko, 18 eta 34 urte bitarteko eta 18 urtetik beherako pertsonak ere izan ziren.




Parte-hartzaileak, adinaren arabera

5.1.4 Parte-hartzaileak, eragile-motaren arabera

Argi eta garbi ikusten da Getxoko biztanleak direla parte hartze handiena izan zutenak (% 88), 10 parte-hartzailetik ia 9 getxoztarrak izanik. Neurri txikiagoan (% 10etik beherako ehunekoan), Getxoko elkarteek eta udal-ordezkariek parte hartu zuten.

Azkenik, beste udalerrri batean bizi eta Getxon lan egiten duten edo bisitatzen duten pertsonak eta teknikariek ez zuten parte hartu.




Parte-hartzaileak, eragile motaren arabera

5.1.5 Parte-hartzaileak, bizilekuaren arabera

Bizilekuaren arabera ordezkartza handiena izan zuen auzoa Andra Mari da, % 51. Aurreko faseko partaidetzan ikusi zen bezala, bizilekuaren araberako partaidetza ez dator bat udalerriko biztanleriaren banaketarekin, baizik eta Hasierako Onespenak sortzen duen interesarekin; 2001eko planarekin alderatuta, eremu horretan lurzoru urbanizagarriaren zati handi bat desklasifikatzen du, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuz.

Parte-hartze handiena izan zuen hurrengo auzoa Algorta da (% 17), eta oso gertutik jarraitzen dio Salsiduk (% 14). Azkenik, neurri txikiagoan gainerako auzoak.



Parte-hartzaileak, bizilekuaren arabera

5.2 Azken ondorioak

Guztira, 1041 parte-hartzaile izan dira, kontuan hartu gabe agian pertsona batzuek parte hartzeko modu bat baino gehiago erabili zutela (adibidez, hitzaldi publikoetara joan ziren pertsona batzuek banakako bilerak izan zituzten erredakzio-taldearekin, edo herritarren karpetara hurbildu ziren). Hala eta guztiz ere, parte-hartze prozesuak, bere mekanismo aniztasunarekin, plana herritarrei hurbiltzea lortu zuen, bai informazioa jaso nahi izan zutenei, bai zalantzak edo kontsultak argitu nahi izan zituztenei, eta, kasuaren arabera, fase horretan Planari alegazioak egitea.

Aldi berean, mekanismoen multzoari esker, HAPO berriaren hainbat gairi buruzko zenbait ikuspuntu identifikatu ziren, bai Planaren alde, bai kontra. Alde batetik, nolabaiteko adostasuna ikusi zen Azkorri aktibo natural gisa babestearen alde (kontrako iritzi batzuekin). Bestalde, iritzi-aniztasuna ikusi zen, baina adostasun argirik gabe, etxebizitza berrien kopuruari dagokionez (etxebizitza babestuen ehunekoa azaltzerakoan, orokorrean iritzia hobetzen bazen ere) eta lurzoru urbanizagarriko sektoreen garapenari dagokionez (askotariko iritziak daude sektore horietako lurzoruaren edo eraikinen jabeen artean). Azkenik, orokorrean, Zubilleta eraberritzeko edo berritzeko jarduketaren aurkako iritzia jaso zen eremu horretan bizi direnen aldetik (baina, berriz ere, iritzi-aniztasun apur batekin, jarduketaren aldeko iritziak ere jaso baitziren).